

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Arabako Lurralde Ordezkaritza

Arabako lantokiko ATE Sistemas y Proyectos Singulares, SL enpresaren hitzarmen kolektiboko atxikitze-akordioa

Ebazpena, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Arabako lurralde ordezkararena. Honen bidez ebazten da, Arabako lantokiko ATE Sistemas y Proyectos Singulares, SL enpresaren hitzarmen kolektiboko atxikitze-akordioa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01100012022016.

AURREKARIAK

2016ko uztailaren 15ean aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko negoziazio batzordearen akta, enpresaburuaren eta langileen ordezkariek 2016ko uztailaren 15eko negoziazio-mahaian sinatutakoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritza honi dagokio, apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuko 19.1.g artikulua –Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2011ko apirilaren 4ko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren negoziazio batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 27a

Arabako Lurralde ordezkaria
ÁLVARO IRADIER ROSA

ATE Sistemas y Proyectos Singulares SL enpresako Arabako langileen delegatuak eta enpresa horretako zuzendaritzak egindako bileraren akta, 2016ko uztailearen 15ekoa

Bildu dira

Alde batetik ATE Sistemas y Proyectos Singulares SL enpresaren ordezkariak, eta bestetik langileen ordezkariak (enpresak Araban dituen lantokietako langileen delegatuak).

Adierazi dute

Lehenengoa. Akordio honetarako behar adinako gaitasuna eta zilegitasuna aitortzen diotela elkarri, urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak (Langileen Estatutuaren Legearen testu batekina onartzen duena) 87. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Bigarrena. 2016ko uztailearen 8an alderdi sozialak (langileen delegatuak) Arabako lantokietarako hitzarmen kolektiboa negoziatzea sustatu zuela.

Hirugarrena. Ez dagoela inongo hitzarmen kolektibo indardunen afektaziorik.

Adostu dute

1. ATE Sistemas y Proyectos Singulares SLko egungo hitzarmen kolektibo indardunari (hitzarmenaren kodea: 90101772012014) atxikitzea, bere osoan. Atxikitze horrek 2016ko uztailearen 15etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

2. Akordio hori berehala lan-agintaritzari jakinaraztea, erregistratu eta argitaratu dadin.

3. JPCri ahalmena ematea hitzarmena erregistratu eta argitaratzeko izapideak egin ditzan lan-agintaritzak eskudunen aurrean.

Horregatik, Langileen Estatutuaren 92.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, akta hau sinatu dute, 2016ko uztailearen 15etik aurrerako ondorioekin ATE Sistemas y Proyectos Singulares SLko hitzarmen kolektiboari atxikitzeko akordioarena.